

ELA 1976-2003: Kontraboterezko sindikalismoa



Francisco Letamendia Belzunce (Donostia, 1944)

Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Politikoko irakaslea da, eta orain dela zenbait hamarkada hasi zen ikerlan ugari egiten munduko eta Euskal Herriko nazionalismoei eta indarkeria politikoari buruz. Ikerketa horien emaitza gorena gaztelaniaz eta ingelesez argitaratu den erreferentzia-liburu hau izan da: “Juego de Espejos. Conflictos nacionales centro-periferia”. Bestalde, idazle honek beste ikerlan askotarako hautatu duen gaia mugaren bi aldeetako euskal erkidegoen arteko harremanak izan da; izan ere, horren inguruan sei ikerlan eta zenbait liburu idatzi ditu.

Darabilgun liburu honetan Letamendia beste bide batetik abiatu da, eta euskal sistema politikoan diharduten eragile eraginkor batzuen zeregina, besteak beste, sindikatuena, aztertzeari ekin dio. Irakasle honek egin duen ibilbidean argi eta garbi ikusi ahal izan dugu zein borondate eta adore agertu duen beti pentsamendu bakarraren ikuspegiari aurka egiterakoan. Gogoan izan korrante horrek izan duen pisua euskal erreferente politiko nabarmen batzuk ezabatzean, eta zein gogor saiatu diren korrante horretakoak Letamendiaren ibilbidea apurtzen, gure zorionerako lortu ez dutena.

Manu Robles-Arangiz Institutua

Barrainkua, 13 - 48009-Bilbo

Telef. 94 403 77 99 / Faxe: 94 403 77 66 / e-maila: fundazioa@elasind.org

www.mrafundazioa.org



ELA (1976-2003): Kontraboterezko sindikatua

Autoreak berak aitortzen duenez, azterlan gutxi egin da Euskal Herriko sindikalismoari buruz. Hala ere, euskal sindikatuak bertako gizartean eta politikan hartzen ari diren protagonismoari esker, gero eta gai deigarriago eta erakargarriago bilakatzen ari dira liburugintzan. Hori dela eta, arestiko historiako gizarte-eragileen papera berriro aztertzen duten obrak agertu dira berriki.

Letamendia irakasleak, alde horretatik, egundoko ahaleginak egin ditu ELA Euskal Herriko sindikaturik handienaren egoera aztertzeko, eta hainbat parametroren ikuspuntuetatik egin du (ideologia, antolamendua, sindikatu-ekintza, aliantzak...)

Gutxien ezagutzen den hasiera-hasierako bilakaera ez du larregi jorratu, askoz gehiago landu du, ordea, sindikatuaren sorreraren eta lehendabiziko urteen ezaugarriak (langile-zaletasuna, abertzaletasuna eta kristautasuna), eta bereziki Francoren diktadura amaitu zenetik gaur egun arteko epealdiari dagokionez.

Nabarmen arakatu ditu klandestinitate-garaiko ELA desberdinen gorabeherak, elkarrenganako hurbilketak eta onarpenak, alderdikeriak... azken batean, barne-tirabirak. Eta gertakari horietan barrena III. Kongresura hurbilduko gara, han hartuko baitzuen ELAk gaur egun duen itxura bera.

Letamendiaren ustez, III. Kongresu hura ELAren "birsorrera" bezalakoa da; izan ere, orduko hartan orientabide sozialistaren aukera egiteaz gain, autonomia osoaren bidetik ere hasten da ibiltzen, bai politikaren aldetik, baita finantzen aldetik ere. Hurrengo kongresu guztiak egin ahala, ELAren urte haietako lehentasunak eta, baita ere, krisiak ikusten dira. Hori horrela, sindikatuen esparru lardaskatuan ELA finkatzea eta lan-harremanak instituzionalizatzea dira garai hartako lehentasun nagusiak.

Eubaren ilusioa galdu ondoren, krisialdia etorri zen, baina 1988. urtean idazkaritza nagusia aldatu eta krisia amaitutzat jo zen. VII. Kongresutik aurrera beste etapa bat hasi zen, konpromiso politiko eta sozial gehiago dakarren etapa, hain zuzen.

Izandako kongresu, dokumentu eta argitalpen guztien haritik, eta azken aldi horretako zenbait protagonistaren esanetatik autoreak erakusten digu nola aldenduz joan den ELA eredu instituzionaletik eta zelan arian-arian hurbildu den kontraboterezko eredu batera, askoz lotuago nazio-burujabetze prozesuarekin, oraingoa ez besteko gizarte-eredu bilatzearekin (beste gizarte-mugimenduekin batera), eta langileen alde amore eman gabe agertzearekin.